



**ataria**

**Etxebizitza gehigarria**



2021-11-11  
107.6 fm.  
Ataria.eus



# ETXEBIZITZA GEHIGARRIA

Etxebizitza zure babeslekua da eta horregatik zaindu eta txukun mantendu nahi duzu. Eta horretarako elementu asko hartu behar dira kontuan; hipoteka egoki bat izan behar duzu, aseguru, zerbitzu aproposak... Azterna ekologikoari buruzko hausnarketa egin behar duzu ere. Mundua bakarra da eta dituen lehengaiak ez dira mugagabeak, horregatik da garrantzitsua gutariko bakoitzak sortzen duen azterna ekologikoari erreparatzea; etxebizitzaren energia-efizientzia zaindu behar da material egoiak aukeratuta eta egiten dugun kontsumoa zainduta. Hori guztia egiteko hainbat alor jorratzen dituzten profesionalak topatuko dituzu datozen orrialdeetan.

**AZALA: IBAI LUQUE | TESTUAK: JOSU ARTUTXA DORRONSORO, JON MIRANDA, IRATI SAIZAR ARTOLA, LEYRE CARRASCO, IMANOL GARCIA LANDA | ARGAZKIAK: JOSU ARTUTXA DORRONSORO, JON MIRANDA, IRATI SAIZAR ARTOLA, LEYRE CARRASCO, DAVE BLANCO (ZÜR) ETA JORGE ALLENDE (ZÜR).**



## OSTEGUNA, 2021EKO AZAROAK 11

### Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

**Lege Gordailua:** SS-1323-2013

### Koordinatzailea:

Rebeka Calvo Gonzalez.

**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe.

**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.

**Telefona:** 943 65 56 95.

**E-posta:** ataria@ataria.eus

**Publizitatea:** 661678 818.publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus

**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

**Anoetalea:** 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

**Ibarraldea:** 687 410 118.

ibarraldea@ataria.eus

**Alegialdea:** 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

**Kirolak:** 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus

**Bezero arreta zerbitzua:** **943 30 43 46**



Ataria.eus **ATARIA IRRATIA**  
107.6 FM


**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**









# HURBILTASUNA, GARDENTASUNA, KONPROMISOA ETA PROFESIONALITASUNA

Etxebizitza erostea ez da egunero egiten den zerbait. Erabaki oso garrantzitsua da, bizitzan agian behin bakarrik egingo dena. Pauso hori emateko bidelagun ezin hobe da LABORAL Kutxa, hipoteka zein beharrezkoak diren aseguruak kontratatzeke eskaintzen duenarengatik: hurbiltasuna, gardentasuna, konpromisoa eta profesionaltasuna.

Tolosaldean hiru bulego ditu LABORAL Kutxak: Tolosan, Ibarra eta Villabona. Egunero hogeit hamar pertsona inguru daude lanean hiru bulegoetan, eta bankarekin eta aseguruarekin lotura duten era guztietako zerbitzuak ematen dituzte. «Tolosaldean hiru bulego izanik eskualdearekin dugun konpromisoa erakusten dugu», azaldu du Igor Arin Usandizagak, Villabonako bulegoko zuzendariak. Errotuta dago LABORAL Kutxa Euskal Herrian, bertan sortzeaz gain, hainbat hamarkadatan zehar ematen ari den zerbitzuak erakusten duenez.

Konpromiso horrek ere hurbiltasuna ekartzen du, baina LABORAL Kutxaren izana ez da bakarrik fisikoki hurbil egotea, bezeroekin duten harremana zerbitzuaren erdigunean baitute. «Digitalizazioaren aroan gaude, eta horrek suposatzen duen erroka guztiei aurre egiten diegu, baina azkenean LABORAL Kutxan pertsonak gaude lanean, gure zerbitzuak pertsonari eskaintzen. Pertsonen arteko harremanari garrantzi osoa ematen diogu», azaldu du Miren Gorostegi Larrinagak, Tolosako bulegoan lan egiten duen kudeatzaileak. Hain justu, Hego Euskal Herrian azken hiru urteetan eta 2.000 pertsonari egindako inkesta baten arabera, zerbitzu bat kontratatzerakoan aurrez aurreko arreta nahi du jendeak, %45etik %48ra igo delarik aukera horren alde egin dutenen kopurua. Aldiz, lehentasuna Internet bidez egiteari ematen diotenek ehunekoa %22tik %12ra jaitsi da. «Jendeak digitalizazioa normalizat hartu arren, aurrez aurreko harremana estimatzen du», zehaztu du Gorostegik. Hipoteka bat egitea erabaki oso garrantzitsua da, eta erakundea bezain garrantzitsua da erabakia hartzen lagunduko dizun pertsona bera.

## Hipotekari buruzko informazioa, webgunean

Digitalizazioak erosotasuna ekartzen du, eta LABORAL Kutxako bezeroek zein oraindik ez direnek hipoteken inguruko informazioa jaso dezakete [laboralkutxa.com](http://laboralkutxa.com) webgunean. «Hipotekari buruzko informazioa jaso dezakezu modu digitalean, baina horren atzetik pertsonak gaude, Internet bidez jaso ahal izan duzuna azaltzeko, beste aukera batzuk aztertzeko eta adostasun batera iristeko», esan du Izaskun Muñoa Arrigainek, Ibarra bulegoan lan egiten duen kudeatzaileak.

Izan ere, LABORAL Kutxak erreminta digital guztiak ditu, eskaintzen dituen zerbitzuak Internet bidez kudeatzeko. «Lehen baino aukera gehiago daude gauzak egiteko. Prozesuak asko aurreratu dira. Jende guztiak ez du bulegora joateko aukerarik, eta lasai etxean zaudenean, asteburuetan adibidez, informazioa begiratu eta eragiketak egin ditzakezu», zehaztu du Muñoak. Azken finean, zerbitzu guztiak eta modu guztietara emateko prest daude LABORAL Kutxan.

Hipoteka Lasaigarria nabarmendu dute LABORAL Kutxatik. «Modalitate berezi bat da, eta merezi du epe luzearako zor bat hartzen duzunean, malgutasuna eskain-



Izaskun Muñoa Arrigain, Igor Arin Usandizaga eta Miren Gorostegi Larrinaga.

tzen baitu», azaldu du Gorostegik. «Adibidez, hipoteka 30 urterako hartzen bada, epea luzatu gabe jarri ahal duzu zuk nahi duzun kuota. Hasi zaitezke ordaintzen gehiago, ondo badatorkizu, eta handik urte batzuetara kuota jaitsi. Eta bi aldiz eskatu dezakezu sei hilabetez interesak bakarrik ordaintzea». Azken aukera hori oso lagungarria izan da azken urte eta erdian, COVID-19a dela-eta sortu den egoera bereziaren aurrean. «Beste entitate batzuk diru laguntzak baliatu egin behar izan dituzte horrelako aukera bideratzeko. Hipoteka Lasaigarria duten LABORAL Kutxako bezeroek ez dute behar izan ezohiko moduan jarri diren neurri horiek, hipoteka beraren baldintzak lagundu baitie prozesu horretan», gaineratu du Gorostegik.

Hipoteka egiterakoan, aseguruak kontratatzearen garrantzia ere kontuan hartu behar da. Eta arlo horretan LABORAL Kutxak badu bereizgarria bat, taldean Lagun Aro Aseguruak baitu. «Abantaila da aseguruaren espezialistak diren profesionalak ondoan izatea. Beste finantza erakunde batzuk bitartekariak dira, eta gure kasuan aseguru etxea LABORAL Kutxa taldekoa da. Dena bat gara, eta edozein ezusteko gertatzen denean, ez dugu bitartekari lana egiten, guk ematen diogu zuzenean erantzuna horri», nabarmendu du Arinek.

Gardentasuna eta profesionaltasuna eskutik doaz, eta horri azpimarra berezia egiten diote LABORAL Kutxan. «Gure bereizgarrietako bat gauzak ondo azaltzea da», esan du Arinek, «eta hori bezeroek beraiek konfirmatzen digute. Hipotekari buruz kontsulta egitean, askotan eskertu digute ematen ditugun arreta eta azalpenak. Sentsazio orokorra izaten da guregana kontsulta bat egitera etortzen denean gurturago ateratzen dela bezeroa, lasaiago, informazioa bere osotasunean jaso duela». Horrek erakusten du LABORAL Kutxan lan egiten dutenen profesionaltasuna. Baina ez dute bezeroek bakarrik esaten hori, Stiga ikerketa etxeak finantza entitatei egiten dien kalitate azterketan, LABORAL Kutxa beti goi postuetan izaten dela esan dute hiru kudeatzaileek. «Gure jardunaren zutabe nagusietako bat dira hipotekak», azaldu du Arinek, «eta horrek erakusten du espezialistak gure arlo horretan».

Izan ere, zenbakiak garrantzitsuak dira hipoteka bat kontratatzerakoan, baina ematen den zerbitzua ere bai: LABORAL Kutxak hurbilekoa, konprometitua, gardena eta profesionala eskaintzen du.

## Bulegoak:

Tolosa: San Frantzisko pasealekua, 11; 943

65 02 61

Ibarra: Euskal Herria, 20; 943 67 42 21

Villabona: Kale Berria, 34; 943 69 02 39

Webgunea: [laboralkutxa.com](http://laboralkutxa.com)



# TOLOSA IURRAMENDI

ETXEBIZITZEN SUSTAPEN  
BERRIA LASTER



 **sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa

**943 316 868**  
**[www.sukia.com](http://www.sukia.com)**



# ETXEBIZITZA NAHI ETA EZIN

Etxebizitzaren prezioak oso altuak dira, eta soldatak geroz eta baxuagoak. Gaur egun oso zaila da etxebizitza bat erostea, eta irtenbidea ez da alokairua; alokairuen prezioa ere oso altua baita. Jendarte osoari eragiten dio, baina gazteak dira gurasoen etxebizitzatik ateratzeko arazo gehien dituztenak.

Eusko Jaurlaritzak aginduta egindako Euskadiko Gazteen 2019ko Panoramika txostenak dio Araba, Bizkai eta Gipuzkoako gazteak, batez beste, 30 urterekin emantzipatzen direla, eta arrazoi nagusia etxeen garestitzea dela.

18 eta 29 urte artekoen artean soldata garbia 1.164 eurokoa da batz bestea, eta 30 eta 34 urtekoen artean aldiz, 1.428 eurokoa. Datu gehiago eskaintzen ditu txostenak; 18 eta 24 urte bitarteko gazteen %6,7 bakarrik independizatu dela eta 25 eta 29 urte artekoen artean %35,7. 30 eta 34 urte artekoak dira gehien emantzipatu direnak, %72,8.

Etxebizitza librearen garestitzea da gazteek etxebizitza propioa izateko oztopo nagusia, merkatuko adituek diote 2015etik etxebizitzaren salneurria mantendu dela orokorrean, pentsatzekoa da enpleguaren egoerari (langabezia, soldatak, enpleguaren egonkortze eza...) zor zaiola beraz, egoera. Izan ere, alokairua izan daiteke alternatiba, baina aipatu txostenak dio alokairuan dauden etxebizitzak ez direla nahikoa; 2018an mila etxebizitza baino ez zeuden eskuragarri, aldiz salgai 20.000 baino gehiago zeuden.

## Etxebizitza hutsen inguruko dekretua

Egoerari buelta eman nahian etxebizitza hutsen inguruko dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak pasa den ekainean. Araudi berriaren arabera, urteroko kanon bat ezarriko zaie etxebizitza hutsei, eta alokatzera behartu edota, kasurik larrienetan, desjabetu ahalko dituzte. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak egindako kalkuluen arabera Araba, Bizkai eta Gipuzkoan 15.000 etxe huts baino gehiago daude.

Dekretuak dio metro koadro bakoitzeko 10 euroko kanona ezartzeko aukera izango dutela udalek, dagoeneko hutsik dauden eta bi urte baino gehiago hutsik daramatzaten etxebizitzetara. Kopuru hori %10 handituko da okupatu gabeko urte bakoitzeko. Udalei dagokie dirua biltzea eta denboran mantentzea, bizilagunak gabeko etxebizitzaren ebazpena atzera bota arte. Bildutako dirua udalerrira bakoitzeko etxebizitza politiketarako baliatuko dutelarik.

## Alokatzera behartu

Horiek horrela, etxebizitza huts bat alokatzera behartu ahal izango da, tentsio handiko eremuetan dauden etxeen kasuan. Eremu edo udalerrira horrek etxebizitzarako egiaztatutako eskaria eta premia dituela jaso beharko delarik adierazpen batean. Bi dira hortaz, bete behar diren baldintzak; Etxebizitza izena emanda dauden alokairuko 100 etxebizitza-eskatzailerik egotea gutxienez eta parke publikoaren bidez horien eskariari erantzuteko aukerarik egotea bi urtetan; eta eremuan batez besteko alokairuaren prezioak udalerrira batez besteko errenta baino %10 handiagoak izatea, gutxienez.

Desjabetzeari buruz dekretuak dio muturreko kasuetan eman ahalko dela. Hau da, urtebete baino gehiago hutsik egon diren etxebizitzak desjabetu ahalko dira, hori bai etxebizitzaren eskaria dagoen eremuetan eta desjabetzea erabilera berma-



tzeko egokia denean. Etxea erortzeko arriskuan badago edo pertsonen segurtasuna bermatu ezin bada desjabetzea eman ahalko da ere. Kasu horietan, etxe horiek birgaitzea eta irabazi asmorik gabeko elkarten esku jartzea lehenetsiko da. Bigarren etxebizitzak salbuetsi dituzte.

Etxebizitza hutsen jabeek horiek birgaitzeko laguntzak bideratu dizkiete ere. Alokairu babestutako erabiliko direnak izango dute lehentasuna. Bestetik, etxebizitza hutsak dituztenek aldi baterako Eusko Jaurlaritzari utzi ahalko dizkiete Bizigune programaren bidez.



# ETXEBIZITZA BERRIAK SORTZERIK EZEAN, HUTSIK DAUDENAK BETETZEA HELBURU

Herrian hutsik dauden etxebizitzak kopuruak zehaztu eta gaiaren garrantziaz jabetzeko, azterketa bat egin berri du Amasa-Villabonako Udalak. Guztira, 277 etxebizitza daude hutsik bertan (herri osoko bizitokien %10); horietatik gehienak, landa eremuan: Amasa, Legarreta, Otsabi... «Erdigunean hutsik dauden etxebizitza asko egoera txarrean daude, zaharkituta», adierazi du Xabat Laborde alkateordeak. Udalarentzat, «luxu handiegia» da beraiena bezalako herri batean ia 300 etxebizitza hutsik egotea. «Herritarren beharrak kontuan izanda, altuegia da kopurua. Ez gara bigarren etxebizitzak dituen herri bat».

Honezkero, billabonatar ugari eman dute izena Eusko Jaurlaritzaren Etxebide programan. Ondorioz, etxebizitza hutsen arazoa «lehentasunezko gaia» bilakatu da udalarentzat. «Bizitoki horiei irtenbide bat ematea da helburua, ahal bada, alokairuaren bidez». Hori dela eta, urtea amaitu baino lehen, elkarlan hitzarmen bat sinatu nahi du udalak Etxebizitza Sailarekin.

Hutsik dauden etxebizitza asko herentzian jasotakoak dira, baina jabe berriak ez daude herrian, kanpoan bizi direlako. «Badakigu etxebizitzak zeintzuk diren eta norenak diren; beraz, hutsik mantentzeko jabeek dituzten arazoak ezagutu nahi ditugu, euren iritzia errespetatuz». Jabeekin izan beharreko harreman horietan, udalaren nahia «mahai gainean aukera ezberdinak jarri eta erraztasunak ematea» izango dela aurreratu dute. «Zubi-lanak egingo ditugu, jaurlaritzaren programen abantailak eta baldintzak jabeek zuzenean aurkezteko. Esaterako, Bizigune programak, prezio duineko alokairuak eskaintzen dizkiete herritarrei».


Baliteke etxebizitza hutsen jabeek proposamen berrien inguruan interesik ez azaltzea. Hala ere, udalak eskuartearen duen aukera bat, edo erabakietan eragin ahal izateko tresnetako bat, hutsik geratzen diren etxeei karga fiskala edo zerga areagotzea da. «Programa hauetan parte hartzea erabakitzen dutenei, berriz, zerga arintzea aztertzen ari gara». Gauzak horrela, tendentziari buelta emateko esperantza du udalak.

## Behar ugari, eskaintza urria

Etxebizitzak gaiarekin lotuta, Amasa-Villabonan bada beste arazo bat: «Herriak duen orografiagatik eta eraikitzeko aproposak izan daitezkeen eremuak ez ditugunez, epe motzean etxebizitza eskaintza berri bat eduki ahal izateko zailtasunak izaten ari gara. Hori dela eta, gazte askok jo dute herritik kanpo bizitzera, horrek suposatzen duen galera ekonomikoarekin. Etorrizunarako ere kolpe handia litzateke, berritua herrira itzultzea oso zaila izaten baita».

Horri, alokairu eskaintza urria gaineratu behar zaio: «Herritarren beharrak ugariak dira, baina eskaintza oso txikia da, eta gainera, oso garestia». Une honetan, 600 euro inguruan kokatzen da alokairuaren prezioa, goranzko joerarekin. «Traba handia da gazteentzat. Herrian geratu nahi dute, baina baldintza horiekin oso zaila da».

Alkateordearen iritziz, jabe askok euren etxebizitzak alokairuan ez eskaintzearen



beste arazoietako bat, jabe horiek izan ohi duten beldurra da. «Pisuak okupatzearen beldurra izaten dute, edo alokairua ez ordaintzearena, edo etxeari eragindako kalteak eragindakoa. Horri ere aurre egin beharko diogu, baina badira horrelakorik ez gertatzea ahalbidetzen duten tresnak».

Udalak argi du zein den bere egitekoa: «Alokairuen prezioa erregularizatu behar dela diote, eta ados gaude, baina ezin gara zain geratu. Etxe berriak sortzerik ez badugu, hutsik daudenak merkatura eramahi nahi ditugu, jendez bete daitezten. Etxebizitzak hutsik edukitzeak ez dio inolako ekarpenik egiten herriari, karga bat besterik ez da guretzat. Ezin dugu onartu jendea etxerik gabe eta etxeak jenderik gabe egotea».

**Etxebizitza hutsak:** 277, herriko bizitokien %10

**Kokapena:** Gehienak landa eremuan

**Webgunea:** [Villabona.eus](http://Villabona.eus)



# FAMILIEN BABESLEKU

Tolosako Nafarroa etorbidean kokatuta dagoen bulegoan aseguruak saltzeaz gain, bezeroarekiko duten konfiantza, gertutasuna eta arreta lehenesten dituzte. 35 urte baino gehiago dira Mapfre tolosarren zerbitzura dagoela Tolosako bulegoan, baina Nerea Gonzalez eta Maitane Agirre dira 2012. urteaz geroztik bertako egunerokoan ardura daramatenak. Euren jarduera nagusia aseguruak saltzea bada ere, bezeroa- rekiko tratua eta arretari ematen diote garrantzi gehien.

Arreta pertsonalizatua eskaintzen dute, gertukoa eta konfiantzazkoa. Hori da Mapfre gainontzeko aseguru etxeetatik bereizten duena. Izan ere, aseguruen mundu zabalaren barnean, bezeroak dira euren lehentasuna, eta horiek zaintzea da haien helburua. Bezero bakoitzak duen arazo eta zalantza guztiak argitzeko prest egoten dira, eta horren aurrean, beharrezko laguntza eskaintzen dute. Denbora hartu eta in- formazio osoa eskaintzen dute, edozein arazo edo zalantzaren aurrean irtenbide egokienaren bila.

Arlo askotako aseguruak lantzen badituzte ere, familiei bideratutako etxebizitza aseguruak dira nagusi. Hain zuzen, etxean sortu daitekeen edozein arrisku edo ara- zo konpontzen saiatzen dira Mapfren. Horretarako, ohiko estaldurez gain (sutea, kalte elektrikoak, ur isuriak, erantzukizun zibila...), gaur egungo beharrei erantzun egokia emateko estaldura berriak ere badituzte; horien artean daude arrisku orotari- ko estaldura edota arrisku teknologiko orotariko estaldura (gailu elektronikoen ga- lera). Gainera, edozein ezustekoren aurrean, Mapfrek 24 orduko zerbitzu eta gremio



propioak eskaintzen ditu: sarrailagilea, iturgintza, igeltseroa, margotzailea eta argi- ketaria, besteak beste. Azkartasun osoz arazoa konpontzen saiatuko dira. Izan ere, premiazko eskaera baten aurrean, horiek guztiek bi ordu baino gutxiagoko denboran azalduko dira arazoa dagoen lekura, eta sa- rrailagilearen kasuan, hogei minututan.

Tolosako Mapfrek eskaintzen duen zerbitzu eta arretari esker, bulego desberdin bat izatea lortzen du. Bertan jaso ahal izango dira edo- zein familien nahi, behar eta neurrira eginda- ko aseguruen inguruko informazio osatu eta profesionala.

**Helbidea:** Nafarroa etorbidea, z/g  
[Tolosa]

**Telefono zenbakia:** 943 65 38 35

**Webgunea:** [Mapfre.es](http://Mapfre.es)

**Emailak:** [gonzan@mapfre.com](mailto:gonzan@mapfre.com) eta  
[maitagu@mapfre.com](mailto:maitagu@mapfre.com)

M

m

Muñazabal

400m-ko erakusketa  
Tolosaren erdigunean

San Inazio, 2 • 20400 Tolosa 943 65 17 61 [www.munazabal.com](http://www.munazabal.com) • [munazabal@munazabal.com](mailto:munazabal@munazabal.com)



# «ZUREZKO ERAIKUNTZA GEROZ ETA ZABALDUAGO DAGO JENDEAREN ARTEAN»

Leire Malkorra, Nahikari Calleja eta Isaura Rodriguez **ZÜR STUDIO**

Egurra da gaur egun arkitektura munduan gehien erabiltzen den materialetako bat, eta geroz eta gehiago dira zurezko eraikuntzara salto egin duten estudioak; horren adibidea dugu Tolosako Zür Studioa, hain zuzen. Arkitektura munduan murgildu ziren hiruak, eta hasieran bide desberdinak hartu bazituzten ere, indarrak batzea erabaki eta Zür Studio sortu zuten. Eraberritzeetan, birgaitzean eta zurezko eraikuntzan daude espezializatuta.

## Nola egiten duzue lan?

**Leire Malkorra:** Normalean bakoitza proiektu baten arduraduna izaten da, baina gero dena batera egiten dugu. Hiruok dugu antzeko profila, baina gero bakoitza gauza desberdinetan dago espezializatuta. Adibidez, Isaura Revit teknologian da aditua, BIM eraikuntza sisteman; Nahikari hirigintza eta genero ikuspegian; eta nik birgaitze masterra egin nuen eta egurraren eraikuntzan naiz aditu. Hiruok ideologia eta kontzeptu arkitektoniko orokor antzekoak ditugu, hala ere. Horregatik, proiektuetan gutako bat buru izan arren, gero denen artean egiten dugu lan.

## Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

**Nahikari Calleja:** Zür Studiotik eraikuntza hasieratik bukaeraraino kudeatzeko aukera eskaintzen dugu. Hau da, bezeroak estudioan egin nahi duena azaltzen digu, guk proiektuaren proposamenak egiten dizkiogu eta egingo dena adosten denean, proiektua idazten eta marrazten dugu. Beharrezko tramiteak kudeatzen ditugu eraikitze lizentzia lortu eta obrarekin hasteko. Konfiantzako gremio eta eraikuntza enprekin lan egiten dugu. Prozesu osoa hasieratik bukaeraraino kudeatzen dugunez, proiektuaren hasierako proposamena errealitatera eramaten dugu.



**Eraberritzeetan eta birgaitzeetan zaudete espezializatuta, baita zurezko eraikuntzan ere. Geroz eta jende gehiago animatzen da zurezko eraikuntzara?**

**Malkorra:** Baiezkoa esango genuke. Euskal Herrian historikoki beti egon da zurezko eraikuntza, hori zelako hemen aurkitzen zen materiala. Hormigoiaoren gorakadaren eraginez, egurraren eraikuntza galdu egin zen, baina Europako Iparraldean inoiz ez da galdu eraikuntza hori. Adibidez, Norvegia edo Danimarkara joanez gero, han bertan zuraren eraikuntzarekin jarraitzen dute, eta gainera bertan galdetuko dizute ea hemen zer dela eta ez dugun egurra erabiltzen eraikitzeke.

## Zein proiektu edo helburu dituzue etorkizunean?

**Isaura Rodriguez:** Oraintxe esku artean mota askotako proiektuak dauzkagu: base-riren birgaitzeak, zurezko obra berriko eraikinak, etxebizitzetan irisgarritasuna bermatzeko proiektuak, eraberritze komertzialak eta etxebizitza berritzeak. Proiektu jasagarriak egiten ditugu bai ingurumenarekiko eta bai jendearrekiko, genero ikuspegia kontutan izanik uneoro. Alderdi horiek batu eta aldi berean nortasuna izango duten proiektuak egitea da gure helburua.

**Helbidea:** Zerkausia kalea 1, behea [Tolosa]

**Kontaktuak:** 943 67 46 11 eta [info@zur.eus](mailto:info@zur.eus)

**Webgunea:** [Zur.eus](http://Zur.eus)

**Sare sozialak:** [@zurstudio](https://www.facebook.com/zurstudio) [Facebook] eta [@zurstudio\\_arkitektura](https://www.instagram.com/zurstudio_arkitektura) [Instagram]





# SOLUMOBEL, MUGIKORTASUN ARAZOA DUTENENTZAT ETXEBIZITZA SEGURUAK ETA IRISGARRIAK SORTZEN

Etxebizitzak seguruak eta irisgarriak izan daitezen egiten du lan Sulumobel enpresak. Altzari egokituak eskaintzen dituzte, bereziki, mugikortasun arazoak dituztenentzat zein adinekoentzat. Horrela, bizi kalitatea hobetzeko alternatibak aurki daitezke: gehienbat etxeko erreformak egiten dituzte, sukaldeak, armairuak, ate eta leihoak, bainugelak edota lurra.

Altzari teknologikoak dira beraien bereizgarri. Irisgarritasuna lortze aldera, alturara egokitzen diren altzariak eskaintzen dituzte, motorizatuak nahiz eskuzkoak. Adibide batzuk jartzearren, armairu egokituak, mugikortasun arazoei aurre egiteko esekitoki motordunak edo eskuzkoak dituztenak, edota sukalde egokituak, gurpildun aulkitik edo altuera ezberdinetatik lan egin ahal izateko armairuko jasogailu, mahai edo apal mugikorrek.

Leiho eta ateeekin ere egiten dute lan, lurzorua maila berean jarrita, oztopo arkitektonikoak saihesteko. Etxe osoa inongo arriskurik gabe aprobetxatzeko aukera ematen du horrek, segurtasunez autonomia irabaztekoa.

«Horrekin guztiarekin, etxeko segurtasuna eta erosotasuna bilatzen ditugu, izan ere, azken batean, soluzio integrala eskaintzen dugun aroztegi bat gara», adierazi du Jon Telleria Sulumobeleko arduradunak. «Gehienbat sukaldeak eskatzen dizkigute eta gure altzariei esker, beste segurtasun bat lortzen dute etxean; bai bertan bizi direnek eta baita ingurukoek ere. Izan ere, beti duzu kezka armairuko azken platera jasotzeko aulkira igo eta eroriko ote zaren, bada, aulki hori erabili behar izan ez dezazun prestatzen ditugu altzariak», gehitu du.

Kanporantz atera daitekeen armairua izan daiteke irtenbideetako bat; sistema berritzailea da. Erabilera erraza, biltegitratutako objektuetara irisgarritasun hobe, ikusgarritasun hobe eta sarbide azkarra eskaintzen ditu. Armairuan gordetzen den edukia erabiltzailearengana modu errazean hurbil daiteke mugimendu bakar batean, aurrera eta behera mugituz. Sukaldeko gaina ere, nahi den altuerara egokitzen dela jarri daiteke, errazago lan egiteko. Horrela, erabilgarritasun praktikoa eta diseinu bikaina uztartzen dituzte.

## Janaria prestatzeko

Modu seguruan janaria prestatu ahal izateko ere badu eskaintza Sulumobelek: bitrozeramikentzako sentsore inteligentea. Horri esker, etxeetako suteen sorburu nagusia ekidin daiteke. Segurtasun sistema horrek aurreikusi egiten du sukaldea noiz den segurua eta noiz ez, tenperaturak igoera arriskutsu bat izaten badu alarma bidez seinale bat igortzen du lehenbizi eta bitrozeramika automatikoki itzaltzen du gero, bereziki, erabiltzailea bitrozeramikaz ahaztu den momentuetan.

Esperientzia handiko gazte talde bat dago Sulumobelen atzean, talde ekintzailea, ergonomia adituen gomendio zorrotzenekin lan egiten duena. Horrela, bezero bakoitzaren beharretara egokitzen dira, espazio bakoitzerako soluzio eroso eta seguruak sortuz. Funtzionaltasuna bilatuz, lantzen dutena erakargarri egiten saiatzen



dira. Behar eta nahietara egokitutako muntaketak egiten dituzte, diseinutik hasita. Bezeroarekin bere etxean elkartu, beharrak identifikatu eta aurretiko esperientzietan oinarrituta, soluzioak bilatzen dituzte, aholkuak eman eta proiektu pertsonal bat sortuz. Ekoizpen baliabide espezializatuen laguntza dute, bai diseinuan, bai dimentsioetan, neurria egindako soluzioak eskaintzeko. Eta taldeak duen azkartasun eta profesionaltasunarekin instalatzen dute guztia. Behin amaituta, erreferentziak dira salmenta ondorengo eta mantentze lanetako zerbitzuan.

Eskaintzen dutenaz gehiago jakiteko *Sulumobel.com* webgunea bisitatu daiteke. Eta gainerakoan, Apattaerrika 1 industrialdean aurki daitezke, Tolosan. Arlo honetan, mota horretako lanak egiten dituen enpresa bakarra da inguruan: «Guk erabiltzen dugun teknologia Suediatik dator eta gu gara Espainia iparraldean komertzializatzen iristen garen enpresa bakarra».



**Helbidea:** Apattaerrika 1 (Tolosa)

**Telefono zenbakia:** 623 410 242

**Sare sozialak:** sulumobel (Facebook)  
eta sulumobel (Instagram)



# GERTUTASUNA ETA AZKEN TEKNOLOGIA, ESKUTIK

Etixerako familia osoaren beharrak asetzeko irtenbide egokiena eskaintzen du Euskaltelek: Internet, telefono finkoa, telebista eta sakelako telefonoa dituen Infinity paketea.

Internetari dagokionez, giga bateko abiadura duen zuntza du. «Kable berriak jarri ditugu, eta ondorioz, konexio simetrikoa eskaintzen dugu, abiadura handiagoan, beraz», azaldu du Imanol Paredes Tolosako Euskaltel dendako arduradunak. Tolosan dagoeneko kableatu berria duen instalazioa egina du Euskaltelek, eta orain ibarran ari dira, bertako bezeroekin. «Laster, herri guztietara zabalduko dugu, eta horri esker, gailu gehiago batera konektatzeko eta bakoitza abiadura handiagoan joateko aukera izango da. Esaterako, aldi berean egon gaitezke telebistan film bat ikusten, tabletean bideoak erreproduzitzen eta ordenagailuan telelana egiten, inolako etenik gabe».

Internetaren kalitatea eta abiadura garrantzitsua den bezala, berebizikoa da horren irismena, eta horretarako irtenbidea bezeroen eskura jartzen du Euskaltelek: *wifi mesh*. «Etxeko txoko guztietara Internet ondo iristeko teknologia berria da. Orain arte errepikagailuak jartzen genituen entxufeetan sarea zabaltzeko, baina, gailu berriak etxeko kableatu guztia hartu eta wifi sare bat sortzen du. Hala, edozein puntutan wifia eduki ahal dugu, abiadura handian». Paredesek zehazten duenez, hori bereziki egokia da etxe handia edo luzea duenarentzat. «Gainera, router-a bera ere hobetu egin dugu, azken teknologiako gailuak dira, eta asko nabari da hobekuntza».

Telebistari dagokionez, Deko 4K berriarekin dator Infinity paketea, eta horri esker, aukerak biderkatu egiten dira. Android TV du integratua eta baita Chromecast ere, eta horrek edozein telebistan Interneterako sarbidea izatea ahalbidetzen du. Euskaltelek Dekoaren barruan zerbitzu ugari ematen ditu, telebista interaktibo egiteko. «Telebistan ematen ari diren edukiak beste une batean ikusteko edota programa jakin bat grabatzeko aukera adibidez. Horrekin batera, Netflixekin eta Amazonekin hitzarmenak ditugu, eta hartzen dugun paketearen arabera, *streaming* bidezko zerbitzu horiek ere sartzen dira, urtebetez doan».

## Sakelako telefonoetan gorenera

Bestalde, sakelako telefonoetan gorenera iritsi direla baieztatu du Tolosako dendako arduradunak: «Urteetan gigak eta deiak batzen eta gehitzen joan gara, eta esan daiteke gorenera iritsi garela. Izan ere, Infinity-rekin dei eta giga mugagabeak eskaintzen ditugu. Horrek esan nahi du mugikorra une oro konektatuta izan dezakezula, gigak bukatuko zaizkizunaren kezkarik izan gabe».

Imanol Paredesek azaldu duenez, zerbitzuen inguruan galdetuz joaten direnean Infinity eskaintzen diete: «Kontzeptu guztia barnebiltzen du, eta 55,90 euroko prezio finkoan eskaintzen dugu, hau da, ez da hilabete batzuetan prezio bat eta ondoren beste bat, baizik eta urte osoan prezio berbera mantentzen da. Telefono finkoa deiekin, Internet, telebista eta bi mugikor ditu paketeak, eta mugikorreko linea gehiago behar dituenarentzat %50eko deskontua daukagu». Beste aukera bat ere badu Euskaltelek, lehen sei hilabeteetan 29 euro ordaindu, eta ondorengo hilabeteetan 69 euro ordaintzea.



Tolosako Euskaltelen dendako langileak. Eskuinean, Imanol Paredes ibartarra.

Kontuan hartzekoa da egin beharreko instalazioa doakoa dela, eta hilabete batez K Laguntza deiturikoz gozatzen dutela bezeroek, edozein zalantzarekin laguntzeko, matxurei aurre egiteko edota sakelako berria doan konfiguratzeko. Aste bat baino gutxiagoan teknikariek beharrezko guztia instalatzen dute, eta ordutik aurrera prest dago Infinity, etxean zerbitzu guztiez gozatu ahal izateko.

## Denda, herritarren beharretara

Tolosaldeko Euskaltelen dendak Tolosako San Frantzisko pasealekuan dago. «20 urte baino gehiago dira bertan kokatu zenetik, eta laster, itxura berritua izango du, aurrez aurreko arreta irekiagoa eta gertukoagoa izateko». Hori baita, hain justu, dendaren eta Euskaltelen helburua Paredesek dioen moduan: «Gertutasuna eskaintzea, baina, beti ere, XXI. mendean eta azken teknologia oinarrian dugularik».

Dendara doan jendea, hein handi batean, «betiko jendea» izaten dela nabarmen-tzen du. «Mugikorrarekin edo bere zerbitzuekin zalantzaren bat argitzera datorrena edo zerbitzu gehigarri bat jarri nahi duena. Guretzat pertsonak dira, eta ez zenbaki hutsak. Guk saldu egiten dugu, bai, baina, horrekin batera, zerbitzua emateko eta bezeroei edozertan laguntzeko gaude. *Gourmet salmenta* deitzen diogu, gure nor-tasunaren parte da, eta irizpidearekin eta kalitatearekin saltzean datza». Ezaugarri hori da Paredesen arabera, Euskaltel besteengatik bereizten duena, «bezeroekiko gertutasuna eta tratua».

Horren adibide jarri du, esaterako, pandemia garaian emandako zerbitzua. «Denda zabalik mantendu genuen bakarrak izan ginen, eta gure bezeroek gugana etorri ahal izan zuten edozein arazo konpontzeko. Gure egiteko modua da, eta hori mantentzea berebizikoa da guretzat». Bereiziki, pertsona helduek edota hizkuntzarekin hain ondo moldatzen ez direnek eskertzen dutela dio. «Laguntzeko norbait izatea oso garrantzitsua da, eta gure dendara etorri gero, edozein zalantza argitu dezake. Denda zerbitzuak kontratatzeke gune bat baino gehiago da, gure bezeroei arreta eta laguntza, gertutasunez eskaintzeko txokoa da. Beti dugu tartea bezeroei behar duten horretan laguntzeko».

**Denda:** San Frantzisko pasealekua, 19

[Tolosa; 943 57 24 57]

**Webgunea:** [Euskaltel.com](http://Euskaltel.com)



# BEROTASUNA MODU EKOLOGIKOAN LORTZEKO AUKERA

Egurretik eratorritako produktuak saltzen dituzte orokorrean Naturberon, eta zehazki, duela zazpi urte ekin zioten pelletaren ekoizpenari. «Tamaina desberdinetako ezpalak sortzen hasi ginen, baina tamaina txikiko ezpalen eskaria zegoela ikusi genuen eta leku askotan ezpala horiek galdaratan erabiltzen zirela», kontatu dute Naturberon. Beraz, ezpala alde batera utzi eta pelletarekin jarri ziren martxan. Etxe edo negozio batean berotasuna lortzeko modu ekologiko batean erabiltzen den erregai naturala da, hain zuzen. Zerrategietako zerrautsetan du jatorria eta errota edo prentsa baten bidez sortzen den produktua da. Naturberon ez dute itsasgarririk edo inolako gehigarri kimikorik erabiltzen, egurrezko zerrautsarekin bakarrik eginda daude.

DINplus ziurtagiriaren bitartez egiaztatu daiteke pelletaren kalitatea, eta Naturberon sortutako pelletak araudia betetzen duela jakinarazi dute. Izan ere, erabilera termikoetarako pelletaren ekoizpen prozesuan kalitate handia bermatzen du eta baita galdara eta berogailuen funtzionamendu egokia ere. Hala ere, pelleta ukuilu edota zalditegiatarako ere maiz erabiltzen dela azaldu dute: «Adibidez, zaldien oheak lastoz egin beharrean, pelletarekin egin daitezke. Horren abantaila da zaldiek pixa edo kaka leku zehatz batean egiten badute, zikindu den atal hori soilik kendu behar dela. Lastoz egindako ohean berriz ez da posible, lasto guztia aldatu behar baita».

## Erregai ekologikoa

Pelleta berokuntza sistemetarako dauden erregaietan ekologikoenetakoa dela aipatu dute, gainera. Bere ekoizpena eta kontsumoa bertatik bertara egiten da eta aukera ezin hobea izan daiteke gutxiago kutsatzeko. Modu horretan, biomasaren bidezko energiaren ekoizpenaren aldeko apustua egiten dute Naturberon, eta horrek eragin nabarmena du basoen zaintzan; suteak eta izurriteak izateko arriskuak gutxitzen baitira. Hala ere, beste erregaiekin alderatuz gero, desberdintasun handiena prezioan dagoela azpimarratu dute Naturberotik: «Bere garaian egin zen estudio batek argi uzten du energia merkeena pelletaren bitartez sortzen dela». Horregatik, gasolioa, gasa eta betidanik erabili ohi izan diren beste lehengai horiek guztiak alde batera uztea eta energia berriztagarriarekin bat egitea da Naturberok duen helburuetako bat. Gainera, Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) urte batzuetan zehar diru laguntzak eman zituen eta ondorioz «jendeak etxeak edo baserriak konpondu behar izan zituen ezpala erretzen duten galdarak jartzeko». Diru laguntza horiei esker ezpalekin aritzen diren galdaren eta pelletaren salmenta igo dela esan dute, eta orokorrean, produktu natural honen merkatua zabaldu dela.

## PEFC balioekin fidelak

«Naturberon inoiz ez dugu legez kontrako zuhaitz mozketetatik ateratako lehengariarik erabili, ezta ere legez kontrako basoetatik, bestelako erabilpenerako eraldatu diren basoetatik edo genetikoki eraldatuak izan diren organismo edo balio handiko kontserbaziorako baso suntsipen lanetatik. Langileen eskubideak urratzen diren herrialde eta plantazioetako lehengaiak baztertzen ditugu, era berean». PEFC ziurtagiriaren baldintzen ezarpen eta mantenua bermatzen dute, hain zuzen ere, eta, horren bitartez, Euskal Herria mailan sortzen diren errautsak erosten dituzte euren produktua ekoizti ahal izateko.



## Formatu desberdinak

Gero eta jende gehiagok aukeratzen du egurretik datorren erregai natural hau bere etxea edo negozioa berotzeko, eta horiek erosi ahal izateko, Naturberok hiru sorta edo formatu desberdin eskaintzen ditu.

Lehena Big-bag izeneko 1.000 kiloko ontziak dira; bigarrena 15 kiloko zakuak; eta, azkena, etxez-etxe joaten den 1.000 eta 13.000 kilogramo arteko edukiera duen kamioi zisterna da. Bezero bakoitzak bere nahi edo beharren arabera aukeratu dezake erosi nahi duen formatu bakoitza Naturberoren webgunearen ([Naturbero.com](http://Naturbero.com)) bitartez, 678 15 70 83 mugikor zenbakira deituta edo Adunako Uparan industrialdeko 2. zenbakian dagoen gunera gerturata.

**Helbidea:** Uparan industrialdea, 2 [Aduna]

**Telefono zenbakia:** 678 15 70 83

**Webgunea:** [Naturbero.com](http://Naturbero.com)

**Emaila:** [info@naturbero.eus](mailto:info@naturbero.eus)

**Sare sozialak:** [Naturbero](#) [Facebook],  
[@naturbero](#) [Twitter] eta  
[natubero](#) [Instagram].



# MODERNITATERA EGIN DU SALTO

1998an ireki zituen atea Antenas Tolosak. 25 urte hauetan antena parabolikoen instalazioarekin jardun izan da, baina beste hainbat lan ere izan ditu nagusi: telebistako zirkuitu itxia; telebistako instalazio zaharren eguneraketa; eta marka guztietako atezain automatikoak eta bideoatezainen instalazio eta konponketak, besteak beste. Orain, modernitatera salto eginez, Digi telefonia mugikorreko eta Interneteko hornitzailea gehitu zaio zerrendara Antenas Tolosari. «Jendeak geroz eta gutxiago ikusten du telebista antenaren bitartez, eta orain Interneteko beste aukera hori dago mahai gainean. Beraz, halako zerbait gehitu eta sartu nahi genuen enpresan, beste berrikuntza bat», azaldu dute Antenas Tolosako langileek. Azkar iritsi zitzaizen berrikuntza hori enpresara, eta bi aldiz pentsatu gabe aurrera egitea erabaki zuten. Izan ere, eskualde osoan Digi konpainiaren zerbitzua aurkitu eta kontratatu daitekeen leku bakarra da Antenas Tolosa.

Digi telekomunikazio konpainia da, Internet nahiz mugikorreko tarifa desberdinak eskaintzen dituen; biak batera edo bakarka kontratatzeko aukera ematen du, gainera. Mugikor eta fibra bidezko 20 konbinaketa baino gehiago ditu aukeran, eta horiek guztietatik pack ezagunenak bi direla azpimarratu dute: alde batetik, hilabeteen 30 euroren truke eskaintzen dituen mugikorreko 8GB dei mugagabeekin bate-



ra, gehi Interneteko 300 mega; eta beste alde batetik, hilabeteen 36 euroren truke eskaintzen dituen mugikorreko 12GB dei mugagabeekin batera, gehi Interneteko 1GB. Horrez gain, eskaintza pertsonala sortzeko aukera ere ematen duela kontatu dute: «Konbinaketak arazorik gabe egin daitezke, zure behar edo nahiaren arabera». Etxebizitza, komunitate edota enpresei zuzendutako tarifak dira, hain zuzen, edozein konpainia dutelarik. Gainera, seinalea iristen den herri guztietan jarri daitekeela jakinarazi dute.

«Antenas Tolosan eskaintzen dugun zerbitzua ez dago mugatuta. Eskualdean eta Gipuzkoan ez ezik, beste eskualde edota lurraldetan ere egiten dugu lan. Horretarako arazorik ez dugu Antenas Tolosan».

**Helbidea:** Iurre Auzoa, 15 (Tolosa)

**Telefono zenbakia:** 943 67 12 31

**Emaila:** Antenastolosa@gmail.com

**CONSTRUCCIONES  
ABURUZA, S.L.**

**KALE BERRIA 46, BEHEA  
20150 VILLABONA**

**www.aburuza.com  
komertziala@aburuza.com  
943 69 02 97 / 607 445 484**

**DATORREN PROMOZIOA**

**BERASTEGI – ATEGI II**

**12 ETXEBIZITZA TASATU  
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA  
GARAJE IREKIA BARNE  
EGIN ZURE ERRESERBA!**

**169.627€-tik hasita**



# «HERRITARRAK, INDUSTRIA TXIKI ETA ERTAINA ERALDAKETARAKO FUNTSEZKO ERAGILE IZAN BEHAR DUTE»

Jose Ignacio Asensio **Diputatua**

Jose Ignacio Asensio (Tolosa, 1965), Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetarako diputatu izateaz gain, Gipuzkoako bigarren diputatuordea da, eta bere departamentuko ardatz nagusietako bat Gipuzkoan trantsizio energetiko bat burutzea da. Klima aldaketaren aurkako borrokari aurre egin eta ekonomia deskarbonizatzeko beharrezko erreminta bat izateaz aparte, diputatu tolosarrarentzat, pobrezia energetikoari aurre egin eta energia sistemaren erdigunean pertsonak eta herritarren erabakiak ipintzea ahalbidetuko du sistema energetikoaren eraldaketak.

## **Zein helburu lortu nahi dira energia komunitateekin?**

Trantsizio energetikoak goitik beherako eredu aldaketa bat suposatzen du. Sistema oligopoliko batetik, sistema deszentralizatu batera; iturri fosilak erabiltzen dituen eredu batetik, energia berriztagarrietan errotzen den eredu batetara, eta batez ere, kontsumitzaile pasiboetan oinarritutako eredu batetik, kontsumitzaile-ekoizle aktiboetan oinarritzen den eredu batera. Eta energia komunitateek, energia ekoiztu eta kontsumitzeko modu berri bat ekartzen digute, non herritarren papera indartu egiten den pertsonak sistema energetikoaren erdigunean jarritz. Energia komunitateen papera nagusia beraz, energia garbiak erabiltzeaz gain, herritarrei energiaren inguruan erabakiak hartzeko gaitasuna ematea da.

## **Energia komunitateek kontsumitzaileentzat aurrezkoa suposatzen al dute?**

Energia modelo berriek, eta oro har, trantsizio energetikoak, gizarte gisa daukagun erroka ikaragarri garrantzitsu bati erantzuten diote: batetik, klima-aldaketaren aurkako borrokari aurre egitea; eta bestetik, gizartearen zati handi batek jasaten duen pobrezia energetikoa arintzen laguntzea. Honen inguruan ditugun datuak ikaragarriak dira: Gipuzkoan, zehazki, 62.5000 etxebizitza daude pobrezia energetikoa pairatzeko arriskuan. Eta ez da harritzeko, izan ere, azken hamabi urteetan, elektrizitatearen kostua %53 handitu da, eta gas naturalarena, %25. Abian jartzen ari garen energia eredu berriek, besteak beste, kontsumitzaileentzat %20 inguruko aurrezki ekonomikoa suposatuko dute. Egoera guzti horri aurre egiteko energia jasangarritasunaren estrategia jarri dugu martxan.

## **Zeintzuk dira Gipuzkoa 2050 Jasangarritasun Energetikoaren Estrategiaren helburuak?**

Zaugarritasun energetikoari aurre egitearekin batera, GEHE 2050 Gipuzkoa 2050 Energia Jasangarritasunaren Estrategiaren helburu nagusia gure ekonomia deskarbonizatzea da. 2050. urterako neutralitate klimatikora heltzeko eta energia berriztagarrien kuota 80%ra iristeko erroka daukagu. Horretarako, energia fosilen ordezkapena bultzatu behar da, gure gizartean energia berriztagarrien modelo energetikoak txertatu eta energia eraginkortasuna areagotu behar dugu. Goitik beherako eraldaketa bat egin behar da, eta orain arte erabili dugun energiaren kontzepzio komertziala alde batera utzi. Aurrera begira, energia oinarritzeko eskubide bat bezala lantzen hasi behar dugu.



## **Mendekotasun energetiko handia du Gipuzkoak?**

Lurralterako zaugarritasun energetikoari dagokionez, Gipuzkoak % 92,77ko mendekotasun energetikoa du, eta, beraz, gure autohornikuntza % 7,23koa baino ez da. Gure helburu nagusietako bat energia primario berriztagarria ekoizteko lurraldegaitasuna handitzea da. Eta horretarako, autokontsumorako energia modu bantuan sortzeko ereduak bultzatzen ditugu, hala nola tokiko komunitate eta kooperatiba energetikoak.

## **Nola kudeatuko dira tokiko energia komunitateak? Eredu ezberdinak bultzatuko dira?**

Eredu ezberdin asko daude. Kasu bakoitzak bere eredu zehatza behar du, eta eredu guztiak dira bateragarriak eta osagarriak. Zumarraga, Larraul, Berrobi eta Orexan adibidez, komunitate energetikoak atera dira aurrera. Hauen berezitasuna, udalteeke eraikin publikoen estalkiak lagatzen dituztela da, bertan plaka fotoboltaikoak ipintzeko. Zumaia, Donostia, Arrasate edota Azpeitian aurrera atera den beste ereduak, kooperatibetan, lurzoruan jartzen dira plakak eta interesatutako herritarren artean kooperatiba bat sortzen da, horrek eskatzen dituen konpromisoekin.

## **Europako zuzentzarauak horrelako tokiko energia komunitateak bultzatzen lagunduko du?**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen departamentuak laguntza lerro bat aurkeztu zuen Europako funtsetara, *Euskadi Next* delakoaren bidez, gure udalek baliabide ekonomiko horiek aprobetxa ditzaten, Gipuzkoan autokontsumoa eta energia berriztagarrien sustapena zabaltzeko, eta bide batez bere herritarren eskutik, Gipuzkoan trantsizio energetikoa bizkortzeko. Bide horretan, garrantzitsua da administrazioaren eginkizuna, lurraldeko eragileei, udalei, enpresei eta herritarrei diru laguntzak, lankidetzak eta laguntza emateko. Energia sistemaren erdian pertsonak kokatzen dituen eredu energetikoa eraiki nahi dugu guztion artean eta hori lortzeko, lankidetzak beharrezkoa da; herritarrek, eta industria txiki eta ertaina, eraldaketarako funtsezko eragile izan behar dute.





## «50 ETXE ENERGIA BERDEZ HORNITUKO DITUGU»

Maite Arana Larraulgo alkatea

Maite Arana Larraulgo alkatea da, baina Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Departamentuaren aholkularia ere bada.

**Zein helburu bete nahi dituzue tokiko energia komunitatearen proiektuarekin?**

Larraul Gipuzkoako lehen landa-eremuko energia komunitatea izango da, Tokiko Energia Komunitatearen proiektuari esker. Sustatzen ari garen eredu hori deskarbonizazioaren kontzeptuan oinarritzen da, sorkuntza fosilean oinarritutako energia pixkanaka uztea eta deszentralizazioa errazten baitu, garraio beharrak eragindako ingurumen inpaktua murriztuz. Zero kilometroko eredu berri honetan, instalazioak kontsumitzailearen 500 metroko erradioan daude. Gainera, kontsumitzailea ahalduntzea lortzen dugu, energia berriztagarriak ekoitzi, eskuratu, kontsumitu eta biltegitratzean herritarren rol aktiboa sustatuz.

**Zein ezaugarri dituzte Larraulen jarri dituzuen energia instalazioek?**

Larraulgo energia instalazioak 90 plaka fotovoltaiko ditu frontoiaren estalkian. 30 kW-eko eguzki energia sortuko du eta Larraulgo 50 etxetan energia berdea autokontsumo erregimenean hornitzeko moduan egongo da.

**Proiektu honekin aseko dituzue Larraulgo behar energetikoak?**

Udalerriko 50 etxek eta Larraulgo Udalak berak % 100 energia berriztagarria kontsumitu ahal izango dute eta, hala, argindarraren faktura merkatuko dute. Horrek gastu txikiagoa ekarriko du udal zerbitzuen kontsumoan, eta, jakina, klima aldaketaren aurkako borrokan dugun konpromisoaren adibide izango da.

**Zein abantaila dakarkie herritarrei komunitate honetako kide izateak?**

TEK Larraulen parte hartzeak unitate bakoitzari urtean argiaren fakturan gutxi gorabehera % 20 aurreztea eta CO2 emisioak 125 tona murriztea ekarriko dio. Beraz, herriko energia menpekotasuna murriztuko dugu, energia berriztagarrien erabilera sustatuko dugu eta baita autokontsumoa ere. Gainera, komunitateko kideak trebatuko ditugu, beren etxeetako eraginkortasun energetikoa handitu dezaten.

**Zer egin behar dute larrauldarrek ekimenean parte hartzeko?**

Bizilagunek udalarekin harremanetan jarri beharko dute. Guk emango diegu informazio guztia eta jarraitu beharreko urrats guztietan lagunduko diegu. Eskerrak eman nahi dizkiet ekimen honetan parte hartuko duten herritar guztiei, eta gainerakoak ere animatu nahi nituzke ekimenean parte hartu dezaten.



## «HERRITARRAK BABESTEKO POLITIKAK EGITEN DITUGU»

Eneko Maioz Orexako alkatea

Orexa Bizirik proiektuaren barruan azkeneko bi urteetan energiaren inguruko lanke-taz hitz egin du Eneko Maioz alkateak.

**Orexan tokiko energia komunitatea sortzeko prozesua zein fasetan dago?**

Guk alderantzizko bidea egin dugu. Lehenik energia komunitatea sortzeko baldintzak sortu ditugu, gero komunitatea bera sortzeko. Guk dagoeneko urrats batzuk eginak ditugu, azpiegitura batzuk sortuak ditugu herrian.

**Zein azpiegitura sortu dituzue orain arte?**

2019 urte bukaeran herriko ostatuaren teiltuan jarri genituen lehenengo eguzki plakak, 50 guztira. Beste 100 plaka jarri genituen iaz pilotalekuko teiltuan eta aurretik Oihan Txiki kooperatibako teiltuan jarri ditugu azkenekoak, 80. Orotara, 130.000 euroko inbertsioa egin dugu azpiegitura horiek sortzen. Laguntza publikoa jaso dugu eta eskertuta gaude erakundeekin proiektuan sinetsi dutelako.

**Zenbateko energia aurrezpena egiten duzue?**

Zaila da kalkulatzeko, azkeneko urte eta erdia berezia izan baita koronabirusagatik. Dena den, orain arte, energia berriztagarrien sorkuntzan egin dugu ahalegina. Autokontsumo komunitarioan parte hartzeko herritarrei eskatu zaien baldintza bakarra izan da euren etxebizitzetako teiltuak uztea egoki ikusten bada azpiegiturak bertan jartzeko. Pozik gaude denek eman digutelako baiezkua. Aukera hori aurrera badoa, uste dugu Orexan behar dugun energia ia guztia sortuko genukeela hemen. Gero, energia horren aprobetxamendu egokirako eta banaketarako bide egokiak topatu beharko ditugu eta horretarako sortuko dugu tokiko energia komunitatea.

**Nola eratuko duzue energia kooperatiba?**

Zazpi lagun ariko dira zuzendaritzan: lau herritar eta beste hiruak herriko erakundeetako –udala, kooperatiba eta ostalua– ordezkari. Sortuta dauden azpiegiturak kudeatuko dira kooperatibaren bitartez. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba izango da eta irabaziak lortuko balira berriro herrian inbertitutako ditugu, energia berriztagarrien arloan. Martxan dugun Orexa Bizirik proiektu estrategikoaren barruan herritarrak babesteko politikak sustatzen ditugu, herria bizirik mantendu dadin. Guk sortzen dugun energia horren banaketa soziala bultzatuko da. Aurrezpen guztia kalkulatu eta gero irizpide jakin batzuen arabera banatuko ditugu herritarren artean. Hobari handiagoa izango dute herriko enpresek edota familia zaurgarriak.



# Etxea berritzeko Mailegu berdea



**Garapen jasangarria  
aukeratzen dutenentzako onurak.**



**Kontratatu  
oraintxe:**



Informazio gehiago:  
[www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es)

